

Lehergailu batek eztanda egin du Jose Perez UGT-ko ordezkariaren etxe aurrean

■ Etxean egindako lehergailua izan da Ertzaintzako iturrien arabera ■ Eztanda larunbaten goizaldeko 01:45etan gertatu zen Karabelgo bere etxe aurrean.



Karabelen izan zen atzo goizaldean eztanda.

KALTE materialak eragin zuten atzo goizaldeko 01:45etan Jose Perezen etxe aurrean eztanda egindako lehergailuak.

Lehergailua laugarren pisuko ate aurrean jarri zuten, eta ondorioz bere eta bizilagunen etxeetako ateetan eragin ditu kalteak. Ertzaintzako iturrien arabera etxean egindako lehergailua izan da larunbatean lehertutakoa.

Jose Perez UGTko ordezkaria eta PSEko afiliatua da.

■ DATZA SUELTOA

Haimar Abad-Aitziber Amantegi bikotea irabazle Bergaran

■ Gipuzkoako txapelketan Ekain Sardon eta Arantza Garin laugarren gelditu dira.

GAZTETXOENTZAKO dantza txapelketan bikain aritu zi-ren hernaniarrak Bergaran. Irabazleez gain hirugarren ere hernaniarrak gelditu ziren,

Mi-kel eta Nerea Lasa. Nagusientzako Gipuzkoako txapelketan, berriz, Ekain Sardon eta Arantza Garin laugarren postuan gelditu ziren

Oreretan. Hurrengo txapelketak Algor-tan eta Sestaon izango dira; Xabier Segura-Lierni Martiarena bikotea bietan izango da. □

■ IGERIKETA

Kirol Elkarteko 25 igerilari Getaria-Zarautz proban gaur

■ Hernaniar gehiago ere badira ■ Kronikak argazkia atera nahi die parte hartzaileei: 09:00etan Atsegindegin.



Hernaniko igerilariak proba bat jokatu ondoren.

Getaria-Zarautz trabesian normalean izaten dira Hernaniko igerilariak eta aurten ere ez dute huts egin.

BI KATEGORIA

Gaztetxoek eta nagusiek proba ezbedinak dituzte. 13 urtez azpikoek 800 metro egingo dituzte igeri: Getariko portutik hondartzaraino. Hernanitik 13 behintzat ateratzekoak dira.

Nagusiak joango dira Getaritik Zarautzeraino igeri. Denera, ia 3 kilometro egin beharko dituzte (2.800 m). Hernanitik gutxienez 12 aterako dira eta horietako bat faboritoen artean dagoena: Olatz Altuna.

Kronikak argazkia aterako die herriko parte hartzaileei. Nahi dutenak gaur 09:00etan Atsegindegira azaldu. □

■ TXIRRINDULARITZA

'Zikuñagako Ama'koek Indurain proba korrituko dute gaur, Beran

■ Hernaniarrek bueltarik motxena egingo dute, 106 kilometrokoa ■ 16 lagun inguru joango dira.

ZIKUÑAGAKO Amako txirrindulari batzuk ibilaldi berezia dute gaur, Beratik aterata. Indurain probak bi ibilbide ditu, 176 km-koa eta 106 km-koa eta hernaniarrek motxena egitekoa dute.

ETXALARRERA

Indurain proba korrituko ez dutenak Etxalarrera joango dira, urteko egutegiak hala agintzen du-eta. Abuztuan deskantsua dute eta irailan hasiko dira berriz. □

San Inazio egunean jaia Santa Barbaran. Zorionak eta Ondo pasa!

SANTA BARBARA
JATETXEA

Santa Barbara, 2 Tel. 943. 331 387 - 20120 HERNANI

AMEGAR, C. B.
ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

● Peugeot 406	TD	1.900.000 pzta
● Peugeot 405 GRI	1.9 Aire egokitua	570.000 pzta
● Peugeot 206	Diesela	berria
● Renault Clio - 5p.	Diesela	775.000 pzta
● Citroen AX- 5 ate	Diesela	475.000 pzta
● Ford Escort - 5 ate	16 balbula - gorria	550.000 pzta
● Renault Express	Diesela	650.000 pzta
● Renault Express	Diesela	450.000 pzta
● Suzuki "Todo terreno"	1.2	290.000 pzta

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...

Bi ordu isildu gabe kantari Morkaikok antolatutako kantu afarian

■ 50 lagun inguru bildu ziren ■ Antolatzaileak eta jendea oso gustora gelditu dira.



Kantu afaria Santa Barnbara elkartearen. Jendea fotokopiatik kantari eta Ansa ahizpak barrenean.

OSTIRALEKO kantu afaria dotore atera zen. Edadetu eta gazte, 50 lagun inguru bildu eta bi orduz aritu ziren ia isildu gabe kantari. Kantu saioa Ansa ahizpek zuzendu zuten, Andres Mitxelena arano-

arraren bertsoekin hasi zuten kantaldia. Eta segitzeko kantu zahar eta berri saila, goizeko ordubiak arte. Eguraldiak lagundu ez zuenez Santa Barbarako terrazan beharrezan elkarrekin barruan egin zen afaria.

SAN INAZIORAKO TXARTELAK SALGAI Morkaikok urtero bazkaria antolatzen du San Inaziotan Santa Barbaran eta dagoeneko sarrerak salgai daude. Kixkale eta Kitton, 2.500 ptan. □

■ PELOTA


Oier Mendizabal Lauterdiko txapeldun

■ 22-8 irabazi zion Jagoba Yuberori, atzo, Urrietako pilotalekuan.

AISE nagusitu zitzaion atzo Oier Mendizabal Jagoba Yuberori, gazteentzako Hernaniko lauterdiko txapelketan.

JAGOBA MINEZ ETA OIER DOTORE

Jagobak ezkerreko eskuko behatz txikian zaintiratu gogor bat zuen, eta medikuek ez jokatzeko esan bazioten ere saiatzea erabaki zuen. Pelota bultzaka eraman zuen, ordea, partidu guztian zehar eta Oierrek gauzak ondo eginda ez zion aukera bakar bat ere utzi. Honenbestez Oier Mendizabal da aurtengo txapelduna. □



Txapelduna eta azpitxapelduna Rufinok sariak banatuta.

‘NAPARRARI’ OMENALDIA

Atzo 15 urte hil zen Fernando Ros ‘Naparra’

■ Extradizio bat salatzeko trenbideko kableak moztu ari zela elektrokutatuta hil zen, Florianan.



Fernando Ros ‘Naparra’ren omenezko monolitoa.

URTEROKO lore eskaintza egin zioten atzo *Naparrari*, Florianan, bere oroimenezko Monolitoan. 1986ean, Gobernu Frantziarrak egin zuen hirugarren extradizioa salatzeko protestaldietan hil zen *Naparra*, elektrokutatuta, Hernaniko tren estazioaren ondoan.

Fernando Ros Abarzuzan jaio eta Hernanin bizi zen 1978a ezkerotik. Gaur Hernaniko koadrila Abarzuzara joango da eta jaioterrian egingo diote bigarren lore eskaintza. Abarzuz eta Hernaniko koadrilek bere oroimenezko bazkaria egingo dute gero.

■ ERREMONTA -BURUZ BURUKOA-

Jokin Etxabe irabazle Bingo Londreseko lehen partiduan

■ 35-23 irabazi zion atzo Iñigo Lekunberriri. Partidu erdirarte gauzak parekatuta joan ziren, baina, hor autsi zen partidua. Etxabek 10 tanto egin zituen sakez. Hurrena Angel Lekunberriren kontra.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 553582
- ▶ Gaez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 553582

5.000 PTA URTEAN

KRONIKAREN ALDE

IZAN ZAITEZ ZU ERE LAGUNTZAILE

DEITU 943-330899

Euskadiko kutxa: 30350025810250077272

Kutxa: 21010041010010968048

IRAGARKI MERKEAK

■ Loro txiki bat galdu da Karmelo Labaka inguruan. Berdea eta horia da. Ikusi duenak deitu: 630-118852.



Asteartean San Inazio egunean, erromeria trikitilariekin.

Menu berezia

Zatoz eguna festa giroan pasatzera!

Marraka-Enea Baserria
Santa Barbara auzoa, 92 Tel.: 943 55.64.81-943 55.46.75
20120 HERNANI

Bikain

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti Bikain...

Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI